Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2017ko maiatzaren 22ko Ebazpena, 2017/2018ko ikasturtean hezkuntza-premia berezietako ikasleekin zerbitzuak emateko zenbait lanpostu, zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenean, betetzeko deitzen dituena.

Deialdi honek hezkuntza-premia berezietako ikasleentzat irakasle-lanpostuak betetzea du helburu, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak eskatuta.

Lanpostu horiek zerbitzu-eginkizunetako erregimenean beteko dira, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, 54. artikuluan xedatzen duena eta uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz kanpoko funtzionario irakasleen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duenak, 12. artikuluaren 4. eta 5. paragrafoetan xedatzen duena aplikatuz. Zerbitzu-eginkizunaren figura hori funtzionarioei aplikatuko zaie.

Lan-kontratua duten langileei dagokionez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, 83. artikuluan ezartzen duenez, lan-kontratudun langileak lekuz mugitu eta lanpostuak betetzerakoan, aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritakoa izango da oinarri, eta, horrelakorik ezean, karrerako funtzionarioak lekuz mugitzeko eta lanpostuak betetzeko sistema hartuko da aintzakotzat.

Horregatik, lan-legepeko pertsonalak behin-behineko esleipenaren bidez lanpostuak betetzeko deialdi honetan parte hartu ahal izatea egokitzat jotzen da; izan ere, behin-behineko esleipenaren sistema zerbitzu-eginkizunen sistemaren antzekoa da.

Horren arabera, betiere Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Deialdiaren helburua.

2017/2018ko ikasturterako I. eranskinean aipatutako lanpostuak betetzea du deialdi honek helburu.

Pertsonal funtzionarioaren kasuan, lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bidez beteko dira.

Lan-legepeko pertsonalaren kasuan, lanpostuak behin-behineko esleipenaren bidez beteko dira.

Bigarrena.- Deialdi honetan parte hartu ahal izateko baldintzak.

- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidego hauetako, eskatzen den lanpostuaren arabera, karrerako funtzionarioa edo praktiketako funtzionarioa izatea:
    - Maisu-maistrak.
    - Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
    - Lanbide Heziketako irakasle teknikoak.

Lan-kontratu finkoa duen aipatutako mailetako pertsonal irakasleak ere izango du parte hartzeko aukera.

Halaber, bitarteko pertsonal funtzionarioak ere parte hartu ahal izango du, karrerako pertsonal funtzionarioari eta praktiketan ari denari, baita lan-legepeko pertsonal kontratatu finkoari ere, lehentasuna emango zaien arren.

- Eskaera aurkezten denean, Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publiko batean zerbitzu aktiboko egoeran, edo postuaren erreserba dakarren egoera administratiboren batean egotea, eginkizun gabetzea izan ezik.

  Era berean, parte hartu ahal izango dute, deialdi honen bidez zerbitzu aktibora itzuliz, zerbitzu berezietakoek eta borondatezko eszedentzia egoeran daudenek, beti ere egoera horretan egoteko gutxieneko epea bete baldin badute.

- Deialdi honetan deitzen direnak ez bezalako beste lanpostu baterako zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenean izendatuak ez izana 2017/18ko ikasturterako, deialdia argitara ematen den datan.

- Lanpostuetara sartzeko baldintzak I. eranskinean zehazten dira. Gainera, aukeratutako lanpostuan lantzen diren desgaitasun mota berekoei lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzunean urtebeteko esperientzia egiaztatu beharko dute lanpostu horiek nahi dituzten pertsonek.

- Memorian 2 puntu edo gehiago izatea baldintzatzat joko da.

- Ondorengoak, batez ere, deialdi honetatik **kanpo** geratzen dira:

  - Aurreko ikasturteetan emandako zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena luzatzeko aukera adierazi dutenak.
  - 2017/2018 ikasturtean IRALE programarako liberatuta egongo direnak.

- Aurreko ikasturteetan emandako zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena 2017/2018 ikasturtean luzatzeko aukerari uko egiten dioten pertsonek ezin izango dute uko egin dioten lanpostua aukeratu.

- Zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena esleitu ondoren, deialdi honen helburua den ikasturteak bukatu arte ezin izango zaio ukorik egin.

Hirugarrena.- Eskaerak formalizatu eta aurkezteko epea.

Eskaerak eta aurkezteko tokia

Interesdunek Hezkuntza Sailaren web orrian argitara eman den eredu ofizialean egin beharko dute eskaera.

Eskaera Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko zaio.

Eskaerak ondorengo tokietan aurkeztu ahal izango dira:

- Hezkuntza Saileko Lurralde Ordezkaritzak.
- Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako erregistroetako edozeinetan.

Parte-hartzaile bakoitzak ezingo ditu bere eskaeran bost (5) eskari baino gehiago sartu, eta lehentasun-irizpideei jarraituta ordenatuko ditu. Lanpostu bakoitza banan-banan eskatu beharko da, lanpostuaren edo funtzioen izena eta herria zehaztuta.

Epea

2017ko maiatzaren 29ra arte, eguna barne, izango da eskaerak aurkezteko epea.

Laugarrena.- Eskaerarekin batera derrigorrean aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da, eskaerekin batera:

- **Eskatutako betekizun espezifikoak**: egiaztatzeko dokumentazioa (jatorrizkoa edo kopia konpultsatua).
- **Adierazitako merezimenduak:** egiaztatzeko dokumentazio ofiziala (jatorrizkoa edo kopia konpultsatua).
- **Memoria**: lanpostua nahi dutenek memoria bat aurkeztu beharko dute, eskatzen duten lanpostuaren funtzioei eta bete beharreko lanari buruzkoa. III. eranskinaren formatua erabili beharko da.

Eskaerarekin batera aurkeztu ez diren merezimenduak ez dira baloratuko, ezta, agertzen diren arren, behar bezala egiaztatu ez direnak ere.

Bosgarrena.- Baloratzeko baremoa.

Izangaien merezimenduak eta memoria deialdi honen II. eranskinean argitara emandako baremoaren arabera puntuatuko dira. Ebazpen hau argitara ematen den datara arte hobetu diren eta behar bezala egiaztatuta dauden merezimenduak besterik ez dira baloratuko.

Lor daitekeen gehienezko puntuazio globala 16 puntukoa izango da.

5 puntuko gutxienezko puntuazio global bat lortzen ez dutenak prozesutik kanpo geratuko dira, baita memoriaren balorazioan 2 puntu, gutxienez, lortzen ez dituztenak ere.

Puntuazioen guztizkoan berdinketak gertatuz gero, baremoaren atal bakoitzaren puntuazioaren arabera ebatziko dira berdinketa horiek, ezarritako ordenaren arabera.

Baloratzeko prozesuaren faseak:

1. Eskatutako lanpostuen baldintzak betetzen direla egiaztatzea: egiaztatze hori tokian-tokiko Lurralde Ordezkaritzan egingo da.

2. Memoriak baloratzea: memoriak baloratzeko, batzorde teknikoak, arlo edo esparruko pertsonal adituarekin, osatuko dira. Baloratze-batzorde orokorrak, beharrezkoa dela uste badu, memoria defenditzeko elkarrizketa batera deitu ahal izango ditu hautagaiak.

3. Merezimenduak baloratzea: Hezkuntza Saileko Lurralde Ordezkaritzetako Berriztapen eta Pertsonal Zerbitzuek egingo dute balorazio hori.

4. Ondoren, fase desberdinen balorazioak balorazio batzorde orokorrari helaraziko zaizkio.

Seigarrena.- Balorazio batzorde orokorra.

Balorazio batzorde orokorrak, ondorengo pertsonek osatuak, baloratuko ditu deialdi honetan exijitutako baldintzak betetzen dituzten eta epean eta behar bezala aurkeztuak izan diren eskaerak:

Batzordeburua:

- Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria edo eskuordetzen duen pertsona.

Batzordekideak:

- Hezkuntza Berriztatzeko lurralde arduradunak edo eskuordetzen dituzten pertsonak.
- Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikari bat.

Idazkaria:

- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako teknikari bat.

Halaber, balorazio batzorde orokorrak sektorean ordezkatuta dagoen sindikatu bakoitzeko delegatu bana izan ahal izango du, ahotsarekin baina botorik gabe.

Zazpigarrena.- Ebazpena.

Behin-behineko ebazpena eta erreklamazioak.

Baloratzeko prozesua egin ondoren, deialdi honen ebazpen-proposamen bat bidaliko dio Langileak Kudeatzeko zuzendariari batzordeburuak, zuzendariak deialdiari buruzko behin-behineko ebazpena eman dezan, onartutako eta kanpoan utzitako pertsonala zein den eta bakoitzari emandako puntuazioa adieraziko dituena.

Behin-behineko ebazpen hori Hezkuntza Sailaren web orrian emango da argitara.

Hiru laneguneko epe bat irekiko da, erreklamazioak egiteko.

Behin betiko ebazpena.

Izan daitezkeen erreklamazioak aztertu ondoren, edo erreklamaziorik ez badago, Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdiaren behin betiko ebazpena emango du argitara, hautagai bakoitzari emandako balorazioak, selekzionatutako edo kanpoan utzitako pertsonen behin betiko zerrenda eta huts gera daitezkeen lanpostuak adieraziko dituena. Pertsonek lanpostuetarako gutxienezko baldintza guztiak, baita baloratze-baremoan exijitutako gutxienezko puntuazioa ere, betetzen badituzte, deitutako lanpostuak ezin izango dira huts geratu.

Aipatu ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio behin-betiko ebazpenaren kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Zortzigarrena.- Izendapena eta zerbitzu-eginkizuna luzatzea.

Hautatutako izangai bakoitza bere lanposturako izendatua izango da 2017/2018 ikasturtea amaitu arte, betiere ikasturtean zehar titularra berriro lanean hasten ez bada.

Zerbitzu-eginkizunak ematea, betiere, lanpostuak lekualdatze-lehiaketaren bidez ez betetzearen baldintzapean dago.

Hautatutakoa zerbitzu aktiboan egon beharrean beste administrazio-egoera batean egonez gero, zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena eskuratzeko lanera itzuli beharko du berehala, eta aldi berean esleituko zaio zerbitzu-eginkizuna edo behin-behineko esleipena. Ez badu hala egiten, eskubidea galduko du, eta hurrengo puntuazio handiena duen pertsona hautatuko da.

Karrerako funtzionarioei zerbitzu-eginkizuna emango zaie lanpostu horiek betetzeko 2017/2018 ikasturtearen amaierara arte.

Praktiketako funtzionarioei dagokienez, zerbitzu-eginkizun bat emateko, karrerako funtzionario izan beharko dute 2017/2018 ikasturtean.

Lan-kontratudun langileen kasuan, lanpostu horiek betetzeko behin-behineko esleipenaren ebazpena emango da, 2017/2018 ikasturtearen amaierara arte.

Halaber, ordezkapenetarako hautagaien zerrendetan izena emanda dauden langileak edo bitarteko langileak aukeratuz gero, lanpostu horretan izendatuko dira 2017/2018 ikasturtearen amaierara arte.

Ez dira luzatuko I Eranskineko A. eta E ataletako lanpostuetarako emandako zerbitzu eginkizunak edo behin-behineko esleipenak, entzuteko ezgaitasuna duten ikasleentzako irakasle lanpostuetarako eta Berritzegunetako logopeda lanpostuetarako, hain zuzen.

Eskainitako gainontzeko lanpostuen kasuetan, aldi hori igaro ondoren, Hezkuntza Administrazioak egindako ebaluazioa positiboa bada, Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendapena luzatu ahal izango du hurrengo ikasturteetarako, horretarako ezarritako prozedurari jarraituz eta lekualdatze-lehiaketen bidez betetzen ez badira.

Bederatzigarrena.- Datu pertsonalak babestea.

Eskatzaileek emandako datu pertsonalak datu pertsonalen fitxategi automatizatu batean sartuko dira eta fitxategi horrek deialdi hau kudeatzea du helburu. Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza da fitxategi horren arduraduna eta, datuetara sartzeko eta datu horiek zuzendu, itxi eta aurkatzeko eskubideez baliatu nahi izanez gero, Zuzendaritza horrengana jo beharko da (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Fitxategi hori erabiltzeko orduan eta berorren funtzionamendurako, datu pertsonalak eta titularitate publikoko datuen fitxategiak babesteari buruzko legeriak xedatutakoaren arabera jokatuko da (abenduaren 13ko 15/1999 legea, datu pertsonalak babestearena; otsailaren 25eko 2/2004 legea, titularitate publikoko datu pertsonalen fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia Sortzeari buruzkoa; eta lege horiek garatzen dituen araudia).

Eskatzaileek espresuki ematen diote beren datu pertsonalak deialdi honetan adierazitako eran eta helbururako tratatzeari oniritzia, baita Hezkuntza Sailaren web orrian (www.hezkuntzaejgv.euskadi.eus) deialdiaren tramiteei begira bakarrik, argitara emateari ere.

Hamargarrena.- Ordezko araudi aplikagarria.

Ebazpen honek prozedurari dagokionez arautu ez duen orotan, aplikagarria izango da Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

ERREKURTSOAK

Administrazio bidea amaitzen ez duen Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, berau argitaratu eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121. artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko maiatzaren 22a

Konrado Mugertza Urkidi
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

I. ERANSKINA

A.- ENTZUTEKO EZGAITASUNA DUTEN IKASLEENTZAKO IRAKASLE LANPOSTUAK

IKASTETXEA / HERRIA	TITULAZIOA	HE	Kop.
Donostia Ibiltaria (Aransgi)	- Entzumena eta Hizkuntzan habilitazioa duen maisu/maistra - Zeinu-Mintzairako 3. maila .	2	2
Tolosa Ibiltaria (Aransgi)	- Entzumena eta Hizkuntzan habilitazioa duen maisu/maistra - Zeinu-Mintzairako 3. maila.	2	2

B.- IKUSTEKO EZGAITASUNA DUTEN IKASLEENTZAKO IRAKASLE LANPOSTUAK

IKASTETXEA / HERRIA	TITULAZIOA	HE	Kop.
IBT-CRI BILBAO	- Pedagogia Terapeutikoa espezialitatea duen maisu-maistra	2	1
IBT-CRI. zuzendaritza Donostia-San Sebastian	- Pedagogia Terapeutikoa espezialitatea duen maisu-maistra.	2	1

C.- EZGAITASUN PSIKIKOA, GARAPENAREN NAHASTE OROKORRAK EDO DESGAITASUN ANITZAK DITUZTEN IKASLEENTZAKO IRAKASLE LANPOSTUAK

IKASTETXEA / HERRIA	TITULAZIOA	HE	Kop.
CEIP Ikas-Bide Ikastola HLHI (Gela egonkorra) Donostia-San Sebastian	- Pedagogia Terapeutikoa espezialitatea eta Entzumena eta Hizkuntza espezialitatea dituen maisu-maistra	2	1
IES Hirubide BHI (Gela egonkorra) Irun	- Pedagogia Terapeutikoa espezialitatea duen maisu-maistra	2	1

D.- MUGITZEKO EZGAITASUNA DUTEN IKASLEENTZAKO IRAKASLE LANPOSTUAK

IKASTETXEA / HERRIA	TITULAZIOA	HE	Kop.
IES HERNANI BHI (gela egonkorra) Hernani	- Pedagogia Terapeutikoa espezialitatea duen maisu-maistra	2	1

E.- BERRITZEGUNEETAKO LOGOPEDA LANPOSTUAK

IKASTETXEA / HERRIA	TITULAZIOA	HE	Kop.
GIPUZKOA (Irungo Berritzegunea)	- Entzumena eta Hizkuntzan habilitazioa duen maisu/maistra	2	3
GIPUZKOA (Lasarteko Berritzegunea)	- Entzumena eta Hizkuntzan habilitazioa duen maisu/maistra	2	3
GIPUZKOA (Zarauzko Berritzegunea)	- Entzumena eta Hizkuntzan habilitazioa duen maisu/maistra	2	2
GIPUZKOA (Ordiziko Berritzegunea)	- Entzumena eta Hizkuntzan habilitazioa duen maisu/maistra	2	1

II. ERANSKINA

(Baldintzak ez diren merezimenduak besterik ez dira baloratuko)

BAREMOA: 16

1.- TITULAZIOAK (gehienez ere 2 puntu)

Pedagogia Terapeutikoa espezialitatea: puntu 1

Entzumena eta Hizkuntza espezialitatea: puntu 1
(Bakarrik entzuteko eta mugitzeko ezgaitasuna, ezgaitasun psikikoa, garapenaren nahaste orokorra edo desgaitasun anitzak dituzten ikasleekin aritzeko lanpostuak)

Psikologian, Pedagogian edo Psikopedagogian gradua edo titulazio baliokidea: puntu 1

2.- PRESTAKUNTZA (gehienez ere 2 puntu)

Ziurtagiri ofizialak eta Hezkuntza Sailak homologatutakoak baloratuko dira (emandako orduen kopurua espresuki adierazi beharko dute).

Aukeratzen den lanpostuari lotutako ikastaroak, 10 ordu edo gehiagokoak, baloratuko dira, 0,10 puntu 10 orduko.

Haien programak eduki asko hartzen duen ikastaroetan, eskatzen den lanpostuari lotutako atala besterik ez da baloratuko.

3.- HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAN ANTZINATASUNA (gehienez ere 2 puntu)

3.a) EAEko, Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioko, beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europar Batasuneko estatu kideen hezkuntza-sareko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan, irakaskuntza arautuan, emandako hilabete bakoitzeko: 0,10 puntu.

Antzinatasuna frogatuko da izendapen edo kontratuaren eta kargu-uztearen fotokopia konpultsatuaz, edo zerbitzu-orriaz. Europar Batasuneko estatu kideen ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak frogatzeko beharrezkoa izango da, gainera, zentroa publikoa dela eta emandako irakasgaiak arautuak direla ziurtatuko duen hezkuntza-administrazioaren dokumentu bat —zinpeko itzulpenaz— aurkeztea.

3.b) Administrazioaren baimena duten unibertsitateaz kanpoko ikastetxe pribatuetan eta aurreko a) puntuan adierazitakoez bestelako erakundeen mendeko ikastetxe publikoetan, irakaskuntza arautuan, emandako hilabete bakoitzeko: 0,033 puntu.

Antzinatasuna frogatuko da zentroaren zuzendaritzak emandako ziurtagiri baten bidez, non zerbitzuen iraupena jasoko den, eta ikuskaritzaren oniritziaz, edo, bestela, kontratuaren fotokopia konpultsatuaz eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiriaz, non zentroaren izena eta altako aldiak agertuko diren.

4.- ESPERIENTZIA (gehienez ere 4 puntu).

a) gehienez ere 2 puntu.

Aurreko 3.a) atalean zehaztutako ikastetxeetan, elbarritasun mota bereko ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzunean emandako hilabete bakoitzeko: 0,10 puntu gehituko da aurreko puntuazioan.

Aurreko 3.b) atalean zehaztutako ikastetxeetan, elbarritasun mota bereko ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzunean emandako hilabete bakoitzeko: 0,033 puntu gehituko da aurreko puntuazioan.

b) Eskatzen den ikastetxean bertan lan egin izana: 2 puntu, gehienez ere.

b) Ikasturte oso edo ikasturte berean 9 hilabeteko edo hortik gorako denbora-tarte bakoitzeko: 0,10 puntu.

Izendapen edo kontratuaren eta kargu-uztearen fotokopia konpultsatuaz, edo zerbitzu-orriaz frogatuko da

5.- FUNTZIOEI ETA BETE BEHARREKO LANEI BURUZKO MEMORIA (gehienez ere 6 puntu)

Lanpostu horiek nahi dituzten pertsonek memoria bat, gehienez ere hamar foliokoa alde batetik, espazio bikoitzean eta 12 tamainako letrarekin, aurkeztu beharko dute, bete beharreko funtzioei eta lanari buruzkoa.

Memoria baloratzeko orduan kontuan hartuko diren irizpideak:

a) Alderdi formalak.
b) Edukia lanpostuaren eginkizunetara nola egokitzen den eta edukiaren garapen orokorra.
c) Erabilitako informazio-iturrien aniztasuna.
d) Erabilitako oinarrizko kontzeptuen argitasuna eta konkrezioa.

III. ERANSKINA

BETE BEHARREKO FUNTZIOEI ETA LANARI BURUZKO MEMORIA

(GEHIENEZ ERE 10 FOLIO, ALDE BATETIK, ESPAZIO BIKOITZEAN ETA 12 TAMAINAKO LETRAREKIN)

EGILEA:

MEMORIA ARI DEN LANPOSTUA:

1. **Sarrera.**
2. **Aurrekariak eta esperientzia lanpostuaren eremuan.**
3. **Helburuak eta jarduteko funtsezko ildoak.**
4. **Bete beharreko funtzioak.**
5. **Erreferentzia teorikoak eta bibliografia.**